

EUSKARAREN HIZKUNTZA PAISAIA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Galdakako Udaleko Euskara Zerbitzuak udalerriko merkataldegientzako diru-laguntzak ematen ditu, kanpoaldeko errotulu identifikagarriak edo toldo komertzial edota publizitarioak euskaraz jartzeagatik, modu horretan euskarazko hizkuntza paisaia sustatzen baita.

Onuradunak

Aurreko puntuan deskribatutako jarduera sustatu edota burutzen duten Galdakako udalerriko merkataldegiko edo ostalaritza-establezimenduko pertsona fisiko edo juridiko titullarrak.

Eskabideak Bizkaiko Agintari Ofizialean (BAO) argitaratuko diren deialdietan adierazitako epean aurkeztu beharko dira.

Irizpide objektiboak

- a) Kontzeptu eta entitate bakoitzeko diru-laguntza bakarra emango da.
- b) Errotulua zuzen idatzita egongo da eta ez du izango akats gramatikalik.
- c) Izen propio, toponimo, akronimo eta abizenak soilik adierazten dituzten errotuluek eta gainerako elementuek ez dute diru-laguntzarik jasoko.
- d) Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direnean errotuluan, lehenetsia emango zaio euskarari, kokapen, neurri edo trinkotasunari dagokionez.
- e) Errotulua euskara hutsean jarriko balitz, kostuaren % 50eko diru-laguntza emango zaio, gehienez 300 euroko muga izanik.
- f) Errotulua euskaraz eta gaztelaniaz jarriko balitz, % 30eko diru-laguntza emango zaio, gehienez 150 euroko muga izanik.

Informazio gehiago:

Euskara Arloa
944010540
zuztarretatik@galdakao.net

AYUDAS EN MATERIA DE FOMENTO DEL PAISAJE LINGÜÍSTICO EN EUSKERA

El Área de Euskera del Ayuntamiento de Galdakao concede ayudas destinadas a aquellos establecimientos comerciales ubicados en el municipio de Galdakao que instalan los rótulos identificativos exteriores o toldos comerciales y/o publicitarios en euskera, fomentando así el paisaje lingüístico en dicho idioma.

Beneficiarios/as

Toda persona física o jurídica titular de un establecimiento comercial o de hostelería ubicado en el municipio de Galdakao, que promueve y/o realice la actividad descrita en el punto anterior.

La presentación de solicitudes se efectuará en el plazo que se señale en las respectivas convocatorias que serán publicadas en el BOB.

Criterios objetivos

- a) Se concederá una única subvención por concepto y entidad.
- b) El rótulo deberá estar redactado correctamente y no tener errores gramaticales.
- c) No percibirán ayudas los rótulos y elementos en el que sólo consten nombres propios, topónimos, acrónimos o apellidos.
- d) Cuando se utilicen las dos lenguas oficiales en un rótulo, se le dará prioridad al euskera, respecto a la ubicación, medidas o bien intensidad.
- e) En el supuesto de que el rótulo sea puesto íntegramente en euskera, la subvención será del 50 % del coste, con un límite máximo de subvención de 300€.
- f) En el supuesto de que el rótulo sea puesto en euskera y castellano, la subvención será del 30 % del coste, con un límite máximo de 150€.

Más información:

Área de Euskera
944010540
zuztarretatik@galdakao.net